

EBAZPENA, 2023KO URRIAREN 18KOA, KONTSUMOBIDE-KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUAREN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ JENDAURREAN JARTZEN BAITA KONTSUMITZAILEEK IBILGAILU BERRIEN ETA BIGARREN ESKUKOEN SALEROSKETAN INFORMAZIOA JASOTZEKO DUTEN ESKUBIDEA ARAUTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUA.

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak xedapen dekretu-proiektu bat landu du, zeinaren bidez arautzen baita kontsumitzaileek ibilgailu berrien eta bigarren eskukoen salerosketan informazioa jasotzeko duten eskubidea ekainaren 30eko 6/2022 Legeak, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarenak, ezarritakoaren arabera izapidetu behar da.

Aipatutako 6/2022 Legearen 17 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, jendaurrean jartzeko izapideak herritarren eskubide eta interes legitimoen zuzenean eragiten zaien guztietan egin behar dira, baldin eta artikulua honetan aurreikusitako salbuespen-kausaren bat gertatzen ez bada.

Horretarako, kontsumitzaileek ibilgailu berrien eta bigarren eskukoen salerosketan informazioa jasotzeko duten eskubidea arautzen duen dekretu-proiektua jendaurrean jarriko da, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Horregatik guztiagatik, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua sortzeko ekainaren 29ko 9/2007 Legearen 4. artikuluetan xedatuarekin bat etorriz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jendaurrean erakustea kontsumitzaileek ibilgailu berrien eta bigarren eskukoen salerosketan informazioa jasotzeko duten eskubidea arautzen duen Dekretu-proiektua, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.– Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, alegazioak aurkezteko aukera eman ahal izateko, dekretu-proiektuaren edukia Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa egongo da eskuragarri iragarki-taula elektronikoa. Egoitza elektronikoa - Euskadi.eus

Hirugarrena.– Alegazioak aurkez daitezke, elektronikoki, iragarki-taula elektronikoa. Egoitza elektronikoa - Euskadi.eus helbidean edo, zuzenean bertaratu, Kontsumobide-Euskal Kontsumoko Euskal Institutuan (Done Jakue hiribidea 11, 01002 Vitoria-Gasteiz); bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein lekutan, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren zuzendariari zuzenduta.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 18a.

Laura Ángela Alzola Kirschgens
Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren zuzendaria,